

ARABIAZ IRUDIKAPEN GARAIDEAK. DISKURTZO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

Sarrera orokorra

Arabiar irudikapen garaikideak epe luzeko proiektu bat da, Catherine David-ek zuzendua, eta Rotterdamgo Witte de Withen eta Bartzelonako Antoni Tápies Fundazioak produzitua Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatearekin (UNIA artepentsamiento) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artelekurekin batera. Proiektu honek, alde batetik, kultura kritikoaren produkzio eta banaketa sustatu eta aktibatu nahi du eta, bestetik, kultura kritiko hau hainbat herrialde arabiarren artean eta hauen eta munduko besteen artean elkartrukatu. UNIA artepentsamiento-ren 2001/2002ko edizioaren programa zabaldu zuen Beirut eskaintako mintegi batean jendaurreko lehen agerraldia egin zuenez geroztik (2001eko urriak 21/26), proiektu honen esparruan –1999an hasi zen prestatzen- hainbat ikastaro eta hitzaldi ziklo antolatu dira (Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatean, Stuttgarteko Akademie Schloss Solitude-n...); erakusketak antolatu dira zenbait museo espaziotan (Antoni Tápies Fundazioa, Veneziako Bienala, José Guerrero Zentroa); taldekako argitalpenak eta monografiko batzuk atera dira (*Tamáss* koadernoak, Artelekuren *Zehar* aldizkariaren dosierra...); eta laneko bilera eta topaketa ugarirako deia ere egin da.

Arabiar irudikapen garaikideak. Kairo Sevillako Instituto Francés eta Granadako José Guerrero Zentroan egin ostean –topaketa hau ahalegin bat zen, Egiptoko hiriburuaren eta beronen inguruaren errealitate politiko eta kultural konplexuari ikuspegi kritiko batetik ekiten dioten proposamen teoriko eta artistikoak aditzera emateko-, proiektu honen azken deialdia ekainaren 14tik 19ra bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artelekun egindako *Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegia izan da.

Gema Martín Muñoz koordinatzailearen hitzetan, mintegi honen helburua eztabaida bat eragitea zen, gaur egun Mendebaldearen eta arabiar mundu, Ekialde Hurbil eta Islamaren arteko harremana baldintzatzen duten kontu batzuei buruz, hala nola “nazioarteko terrorismoaren” aurkako gerratik hasi eta arabiar herrialdeetan (edo Guantanamo, Irak eta Afganistanen estatubatuarrek dituzten kartzeletan) giza eskubideak betetzearen konturaino iritsiz, tartean delarik, inolaz ere, Palestinaren okupazio odoltsua edo Islamismo erreformistak egungo testuinguru politikoan duen eginkizuna. Mintegia amaitzeko erakusketa bat izan zen, eta honen barnean *Arabiar irudikapen garaikideak*. *Beirut-Libano* eta *Arabiar irudikapen garaikideak*. *Kairo-Egipto* ekitaldietan aurkeztutako obren aukera bat; osterantzean, Kubo Kutxa Kursaalaren *Route 181*, *Fragments d'un voyage en Palestine-Israël* filma (Eyal Sivam eta Michel Khleifi, 2003) eskaini zen (2004ko irailaren 30a arte Donostian egiten ari den Manifesta 5 Arte Garaikidearen Bienalarekiko lankidetzan).

Mintegi honen sorburua paradoxa arriskutsu baten egiaztapena da. Mendebaldeko hedabideak mundu arabiar eta musulmanari buruzko albistez beteta daude, baina informazio horiek beti alderdirik sentsazionalistetan eta topikoenetan geratzen dira, eta ez dira ahalegintzen herrialde horietan egun diren egoera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko azalpen zorrotz eta konplexua azaltzen. “Golkoko I. Gerratik –azaldu zuen Gema Martín Muñozek *Arabiar irudikapen garaikideak*. *Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegiaren aurkezpenean-, Mendebaldean berpiztu egin da pentsamendu orientalista (hau da, hain justu, XIX. mendeko kolonialismoaren oinarri ideologikoa), hots, arabiar mundua multzo itxi eta homogeneotzat ikusten duena, bere baliabide hutsez atzean uzteko gai ez

den modernitate-aurreko gizarte eta politika egitura batean ainguratuta balego bezala". Horrela, argi eta garbi sustrai politikokoak diren arazo batzuk termino kulturalista eta esentzialistetan deskodetzera jotzen da. Arazo horietakoak ditugu hurrenak: okupazio eta inbasio militarrek (esate baterako duela gutxi Irak eta Afganistanen gertatuak), giza eskubideak sistematikoki urratzen dituzten gobernu autoritario eta ustelak irautea (Mendebaldearen laguntzari esker)... "Are gehiago, mendebaldeko iritzi publikoaren zati handi batek –esan zuen Gema Martín Muñozek- uste du 'nazioarteko terrorismo' (edo 'islamiko') deituaren atentatuen oinarrian Koranaren eta Islamaren interpretazio fanatiko batzuk besterik ez dagoela".



Mintegi honen helburua gaur egun mundu arabiar eta musulmanean bizi den egoera konplexua azaltzen duten faktore historiko, politiko, sozial, ekonomiko eta antropologiko batzuei buruzko azterketa zehatz eta askotariko bat eskaintzea da; izan ere, faktore horiek baldintzatzen dituzte Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko harreman gatazkatsuak. Horretarako, oso ideologi esparru desberdinetatik (islamismo, feminismo, ezkerreko gizarte mugimendu eta abarretatik) datozen hainbat idazle, pentsalari eta kazetari independenteri egin diegu dei, kontuan izanik betiere horien diskurtsoaren oinarria zeharo demokratikoa izatea.

Espanian, Maroko garaikidearen errealitate soziopolitiko eta kulturalari buruzko ezjakintasuna oso-oso handia da, nahiz geografiari eta historiari begiratuta elkarren oso hurbilekoak izan. Herrialde horrextatik zetozen mintegiko partaidetako bi: Aboubakr Jamaï, arabiar munduan izugarritzko garrantzia duen ikerkuntza kazetaritza kritiko eta independentearen buru diren *Le Journal Hebdomadaire* eta *Assahifa al Ousbouiya* argitalpenen arduraduna bera; eta Nadia Yassine, *Justizia eta izpiritualtasuna* mugimendu islamistaren emakumezkoen atalaren eledun eta arduraduna bera. "Oso garrantzitsu iruditzen zitzaigun –azaldu zuen Gema Martín Muñozek- Marokon (legeztaturik ez dagoen arren) gizarte oinarririk zabalena duen mugimendu islamistari ahotsa ematea, honen diskurtsoa bazterrean uzten baitute (edo, zuzen-zuzenean, satanizatu) herrialde mendebaldarretan".

Mintegiko beste partaideetako bat Salima Ghezali izan zen; kazetari eta idazle honek eginkizun erabakigarria bete du arabiar munduan mugimendu feminista sortu eta finka dadin. Ghezali Aljeriakoa da, azken urteotan zehar mendebaldeko informazioaren mapatik eta, horrenbestez, gure irudi mundutik desagertu den herrialde batekoa. Aljeriatik iristen zaigun informazio urri eta alderdikieriaz betearen eraginez, badirudi estatu kolpe militar baten eta 90eko hamarkada osoan zehar herrialdea astindu zuen gerra zibil odoltsu baten ondoren lortu egin dutela integrismo islamista aienaraztea eta benetako demokratizazio prozesu bat abian jartzea.

“Baina egoera zeharo bestelakoa da –salatu zuen Gema Martín Muñozek-, eta egiaz gertatzen ari dena zera da, mendebaldeko prentsaren isiltasun konplizea, Aljeriako gobernuari inolako zigorrik gabe jasotzeko jarduteko aukera ematen diona”.



Europar eta AEBetan topaketa eta mintegi asko izaten da Ekialde Hurbilari buruz –hauen egitarau eta gonbidatuak oso antzekoak izaten dira-, eta horrelakoetan irudikatu egiten da, antza, nazioarteko komunitatearen ezintasuna israeldar eta palestinarren arteko gatazka konpontzeko. Dinamika horretatik ihes egiteko asmoz, *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* honek gatazkaren alderdi zehatz bati ekitea erabaki du, berau baita Israelgo Estatuaren oroimen historikoaren eraikuntza instrumentalizatua, Michel Khleifi eta Eyal Sivam-en 2003ko *Route 181, Fragments d'un voyage en Palestine-Israël* filmak aztertzen duen gaia alegia. “Oroimen historikoa eraikitzeke prozesu hori ikertu behar da –aipatu zuen Gema Martín Muñozek-, zeren eta aukera ematen baitugu duela mende erdia baino gehiagoz geroztik nazioarteko politika baldintzatzen duen gatazka baten sorburua ulertzeko”.

Gaur egun Europan -nortasun, fede eta ohitura islamikoei eutsiz- musulmana izateko moduari buruzko eztabaidari heltzeko, Tariq Ramadan-en partaidetza izan dugu; filosofia irakaslea da Genevako Eskolan. Kontuan hartu behar da maila politiko eta mediatiko askotatik beldur obsesibo bat ari dela elikatzen, europar musulmanen kopurua areagotzean “kontinente zaharraren” kultur identitatea arriskuan egongo ote den beldurra alegia”. Horregatik, Gema Martín Muñozek uste du Europak aurre egin behar dien erronka handietako bat islamofobiaren berrindartzea dela, batez ere aitzakiatzat ‘terrorismo islamiko’ deitua hartzen duen fobia inkontziente eta sozialki errugabetuarena. *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* amaitzeko, *Voces del pensamiento crítico actual árabe* aurkeztu zen; hau bideo dokumental bat da, Gema Martín Muñoz eta Rafael Ortégak egin, eta Hezboláren zenbait kideri eginiko elkarrizketak jaso dituena. Mugimendu hau funtsezkoa da Libanon eta Ekialde Hurbilean, eta herritarren sektore zabalekin bat egiten duen oso diskurtso politiko garatua du, Europan talde terrorista izatea leporatuz legitimitatea kentzeko ahalegina egiten bada ere.

ARGIBIDE GEHIAGO: <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>

=====